

2022ko ESZENARIO MAKROEKONOMIKOA

Gipuzkoak 2022an aurre egin behar izan zion egoera ekonomiko konplexu eta ziurgabetasunez beteari. Urtearen hasieran pandemiaren ondorio ekonomikoak atzean uzten ari zirela zirudien, eta susperraldi ekonomikoko prozesu bat hasten; baina, Ukrainako gatazkak tentsio handiak eragin zituen. Energiaren prezioak nabarmen igo ziren, eta murrizketa eta itogune handiak izan ziren munduko ekoizpen-kateetan.

Urteko lehen hiruhilekoa %5,8ko igoerarekin hasi zen, batez ere pandemiak ezarritako murrizketak ezabatu ahala gertatu zen errebote-efektuaren ondorioz. Ondoren, nazioarteko tentsioen ondorioz, Gipuzkoako ekonomiaren hazkunde tasak moteltzen joan ziren. Horrela, bigarren hiruhilekoan igoera %4,8koa izan zen, hirugarrenean %3,5koa eta 2022ko azken eta laugarren hiruhilekoetan BPG erreala %2,8 hazi zen.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako ekonomiak **BPG erreala**ren %4,2ko hazkundearekin itxi zuen 2022. urtea. Urteko azken saldoa oso positiboa da, eta Europako herrialde nagusien eta Europar Batasuneko batezbestekoaren gainetik dago (+%3,5).

ESCENARIO MACRO- ECONÓMICO 2022

Gipuzkoa tuvo que hacer frente en 2022 a un escenario económico complejo y lleno de incertidumbres. Cuando a inicios del año parecía que se estaban dejando atrás las consecuencias económicas de la pandemia y se iniciaba un proceso de recuperación económica, el conflicto de Ucrania provocó tensiones importantes. Se produjo un incremento considerable de los precios de la energía e importantes restricciones y cuellos de botella en las cadenas de producción a nivel mundial.

El primer trimestre del año comenzó con una subida del 5,8%, como consecuencia, sobre todo, del efecto rebote que se produjo a medida que las restricciones establecidas por la pandemia se fueron eliminando. Posteriormente, y como consecuencia de tensiones internacionales, las tasas de crecimiento de la economía de Gipuzkoa fueron desacelerándose. Así, en el segundo trimestre la subida fue del 4,8%, en el tercero del 3,5% y en el último y cuarto trimestre de 2022, el PIB real creció un 2,8%.

A pesar de todo ello, la economía de Gipuzkoa cerró el 2022 con un **crecimiento del PIB** real del 4,2%. El saldo final anual es muy positivo, y se encuentra por encima tanto de las cifras de la mayoría de los principales países europeos, como de la media de la Unión Europea (+3,5%).

**BPG errealearen bariazioa /
Variación del PIB real (%)**

	2021	2022
Gipuzkoa	5,9	4,2
EAE / CAPV	5,9	4,4
Espainia	5,5	5,5
Alemania	4,9	3,8
Frantzia	6,8	2,6
Italia	7,0	3,7
EB-27	5,4	3,5

Iturria/Fuente: EUSTAT - Eurostat

Portaera horren gako bereizgarriak lan-merkatuaren portaera aparta eta kanpo-sektorearen tonu ona izan ziren (turismoaren susperraldi handiarekin).

Enpleguaren 2022ko bilakaerak emaitza positiboak eman zituen, bai EUSTATen Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) okupazio-estatistiketan, bai Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruan.

Lehen iturriarekin, Gipuzkoan, urteko batez bestean, enplegua 7.200 pertsonatan hazi zen 2022an, eta bigarrenarekin 8.300 pertsonatan. Nolanahi ere, BJAREN arabera, afiliazioa okupazioaren gainera hazi da sistematikoki. Azken estatistika horretan oinarrituta, langabezia-tasa %6,9koa izan zen 2022an, 2010etik izandako txikiena.

Nolanahi ere, egia esan, Gipuzkoako lan-merkatuak erresilientzia seinaleak erakutsi ditu, baita ziurgabetasun handiko uneetan ere, hala nola aurreko ekitaldian bizi izandakoetan.

Las claves diferenciales de ese comportamiento fueron el extraordinario comportamiento del mercado de trabajo y el buen tono del sector exterior (con una intensa recuperación del turismo).

La **evolución del empleo** durante 2022 ofreció resultados positivos, que son evidentes tanto en las estadísticas de ocupación de la Encuesta de Población en relación con la Actividad (PRA) del EUSTAT, como en el número de afiliados a la Seguridad Social.

Con la primera de ambas fuentes, el empleo medio anual creció en Gipuzkoa en 7.200 personas en 2022; con la segunda, en 8.300 personas. En todo caso, se advierte que la afiliación ha venido creciendo sistemáticamente por encima de la ocupación en términos de la PRA. En base a esa última estadística, la tasa de paro se situó en 2022 en el 6,9%, la más baja desde el año 2010.

Sea como fuere, lo cierto es que el mercado laboral de Gipuzkoa ha mostrado señales de resiliencia, incluso en momentos de elevada incertidumbre como los vividos el pasado ejercicio.

2022an, **kanpo-merkataritzak** dinamismo handia erakutsi zuen. Esportazioek 9.905 milioi euroko errekorra izan zuten (aurreko urtean baino %22,0 gehiago), eta inportazioak 5.719 milioi eurora iritsi ziren (2021ean baino %23,0 gehiago). Horren ondorioz, merkataritza-saldoak 4.186 milioi euroko superabita izan zuten.

En 2022 el **comercio exterior** mostró un gran dinamismo. Las exportaciones registraron una cifra record de 9.905 millones de euros (22,0% más que el año anterior), y las importaciones llegaron hasta los 5.719 millones de euros (23,0% más que en 2021). Como consecuencia de ello, el saldo comercial presentó un superávit de 4.186 millones de euros.

ESPORTAZIOAK / EXPORTACIONES (milioi eurotan / millones de euros)								
Urtea	Guztira	Nekazaritza	Papera	Plastikoa eta kautxo	Metalak	Material elektrikoa	Garraio - materiala	Besteak
Año	Total	Agricultura	Papel	Plástico y caucho	Metales	Material eléctrico	Material de transporte	Resto
2020	6.935	365	390	206	1.317	2.495	1.554	609
2021	8.120	394	485	293	1.881	2.790	1.518	759
2022	9.905	623	622	379	2.468	3.212	1.592	1.009
Urteko aldaketa tasak (%) / Tasas de variación anual en %								
2021	17,1	8,0	24,3	42,4	42,8	11,9	-2,3	24,6
2022	22,0	58,2	28,4	29,4	31,2	15,1	4,8	33,0

Iturria / Fuente: Eustat

Material elektrikoaren kanpo-salmentak dira kuantitatiboki adierazgarrienak: 3.212 milioi eurora iritsi ziren, hau da, salmenta guztien %32,4. 2021. urtearekin alderatuta, %15,1 hazi ziren.

Las ventas exteriores de material eléctrico son las más representativas cuantitativamente: ascendieron a 3.212 millones de euros y suponen el 32,4% del total. Respecto a 2021 crecieron un 15,1%.

2002an bigarren sektore esportatzaileena produktu metalikoak izan ziren, 2.648 milioi eurorekin. Aurreko urtearen aldean %31,2 gehitu ziren.

El segundo sector más exportador en 2002 fue productos metálicos, con 2.648 millones de euros. Respecto al año anterior aumentaron un 31,2%.

Nekazaritza-sektoreko esportazioak hazi ziren gehien 2002an, %58,2.

Las exportaciones del sector agrícola fueron las que más crecieron en 2002, un 58,2%.

Azterketa geografikoan, Europar Batasunera bideratutako esportazioek (gutzizkoaren %59,1) 5.854 milioi euroko balioa izan zuten, eta %20,9 igo ziren 2021. urtearekin alderatuta.

En el análisis geográfico, las exportaciones dirigidas a la Unión Europea (59,1% del total) alcanzaron un valor de 5.854 millones de euros, aumentando un 20,9% respecto a 2021.

ESPORTAZIOAK / EXPORTACIONES (milioi eurotan / millones de euros)										
Urtea Año	Guztira Total	UE 27				Erresuma Batua / Reino Unido	EEUU	Txina	Latinoamerika	Gainerako herrialdeak / Resto países
		Guztira Total	Frantzia	Alemania	Italia					
2020	6.935	3.949	1.132	737	371	601	390	220	548	1.227
2021	8.120	4.843	1.469	840	457	511	497	240	677	1.352
2022	9.905	5.854	1.830	999	593	797	680	217	728	1.629
Urteko aldaketa tasak (%) / Tasas de variación anual en %										
2021	17,1	22,7	29,7	14,0	22,9	-15,0	27,3	9,0	23,5	10,2
2022	22,0	20,9	24,6	19,0	29,8	55,8	37,0	-9,5	7,5	20,5

Iturria / Fuente: Eustat

Frantziarako kanpoko salmentak, gure esportazioen xede nagusia (gutzizkoaren %18,5), %24,6 hazi ziren. Alemaniara (bigarren merkataritza bazkidea) egindako esportazioak %19,0 gehitu ziren.

Las ventas exteriores a Francia, el principal destino de nuestras exportaciones (18,5% del total) aumentaron un 24,6%. Las exportaciones a Alemania, segundo socio comercial, crecieron un 19,0%.

Erkidegotik kanpoko helmugetarako salmentak, 4.051 milioi eurokoak (gutzizkoaren %40,9), %23,6 gehitu ziren. Erresuma Batuari zuzendutako salmenten dinamismoa nabarmendu zuen bereziki, 2022an %55,8 igo baitziren.

Las ventas a destinos extracomunitarios, por importe de 4.051 millones de euros (40,9% del total), se incrementaron un +23,6%. Destacó especialmente el dinamismo de las ventas dirigidas al Reino Unido, que aumentaron un 55,8% en 2022.

Turismoa lehen mailako baldintzatzaile bihurtzen ari da garapen ekonomikoan. 2022an, Gipuzkoako turismo adierazleek susperraldia sendotu zuten, pandemiaren aurreko mailak gainditu arte.

El **turismo** se está convirtiendo en un condicionante de primer orden en el desarrollo económico. En 2022 los indicadores del turismo en Gipuzkoa mostraron una consolidación de la recuperación, hasta llegar a superar los niveles previos a la pandemia.

Hala, 1.374.157 sarrera erregistratu ziren hotel establezimenduetan, 2021ean baino %51,8 gehiago. Gualdiak, berriz, 2.704.954

Así, se registraron 1.374.157 entradas en establecimientos hoteleros, un 51,8% más que en 2021. Mientras que las

izan ziren, hau da, %55,8 gehiago. Bi kasuetan, errekorra dira datuen serie historiko osoan.


Era berean, nabarmentzekoak dira atzerritar jatorriko sarrera eta ostatu-gauen kopuruaren igoerak, %108,1 eta %126,8, hurrenez hurren.

Inflazioa izan zen 2022ko egoera ekonomikoaren baldintzatzaile nagusietako bat, bai Gipuzkoan, bai gainerako ekonomietan, aldagai makroekonomiko nagusietan eragin baitzuen: kontsumo pribatua, inbertsioa, moneta-politika, etab.

pernoctaciones se elevaron a 2.704.954, un 55,8% más. En ambos casos suponen un record en toda la serie histórica de datos.

Asimismo, destacan los incrementos en el número de entradas y pernoctaciones de origen extranjero, del 108,1% y del 126,8%, respectivamente.

La **inflación** fue uno de los principales condicionantes de la coyuntura económica en 2022, tanto en Gipuzkoa como en el resto de economías, al influir en las principales variables macroeconómicas: consumo privado, inversión, política monetaria, etc.



2022ko lehen erdian, Errusiako Ukrainaren inbasioak eta energiaren eta elikagaien prezioen igoera handiak, areagotu egin zituzten aurreko urtean zeuden tentsio inflazionistak, pandemiaren ondorengo ekonomia berriz ireki ondoren. Urteak aurrera egin ahala, inflazio-tasak etengabe eta pixkanaka handitu ziren, hainbat hamarkadatan ikusi ez ziren maximoetara iritsi arte. Gainera, produktu energetikoen

En la primera mitad de 2022, la invasión rusa de Ucrania y el fuerte aumento en los precios de la energía y de los alimentos, acentuaron las tensiones inflacionistas ya existentes en el año anterior, tras la reapertura de la economía posterior a la pandemia. A medida que avanzaba el año, las tasas de inflación aumentaron de manera continuada y progresiva hasta alcanzar máximos no vistos en varias

portaera hori azkar hedatu zen kontsumo-saskiaren beste osagai batzuetara, etxeetako errenta erabilgarria nabarmen murriztuz eta ekonomia aurreratuetako banku nagusiak beren diru-politikan erabateko aldaketa egitera behartuz.

Urtearen bigarren erditik aurrera, banku zentralek eta gobernu-maila desberdinek hartutako neurriei esker, inflazioak beheranzko bidea hartzea lortu zuen. Abuztuan %10,2ko balio maximora iritsi ondoren, adierazle horrek %5,4ko tasarekin itxi zuen urtea. Jaitsiera, funtsean, energia-prezioen jaitsierak eragin zuen; elikagaien prezioak, berriz, gehieneko historikoetan zeuden. Horrela, iazko zati handi batean ez bezala, energiaren prezioak nabarmen egonkortu ziren, petrolioaren eta gas naturalaren prezioaren beheranzko bilakaerak lagunduta.

Sektore publikoari dagokionez, zerga itunduen zerga-bilketa errekorra izan zen Gipuzkoan 2022an, hasierako aurreikuspenak nabarmen gaindituz. Zehazki, bilketa 5.598 milioi euro baino gehiagokoa izan zen, nahiz eta egia den urte arteko aldakuntza-tasa apalduz joan zela azken hilabeteetan, eta %4,8koa izan zela urtearen amaieran. Errekor hori, neurri handi batean, batez ere urtearen erdialdean izandako inflazioaren gorakadak bultzatu zuen, eta horrek BEZean izan zituen ondorioengatik; baita enpleguaren hobekuntzak eta soldaten hazkundearen bizkortzeak ere.

décadas. Además, ese comportamiento de los productos energéticos se propagó con rapidez a otros componentes de la cesta de consumo, reduciendo sensiblemente la renta disponible de los hogares y forzando a los principales bancos centrales de las economías avanzadas a dar un giro radical en su política monetaria.

A partir de la segunda mitad del año, debido a las distintas medidas adoptadas tanto por los bancos centrales como por los distintos niveles de gobierno consiguió que la inflación tomará una senda descendente. Tras alcanzar un valor máximo del 10,2% en el mes de agosto, este indicador cerró el año con una tasa del 5,4%. El descenso se debió fundamentalmente a la caída de los precios energéticos, mientras que los precios de los alimentos se situaban en máximos históricos. De este modo, al contrario de lo sucedido durante gran parte del año pasado, los precios de la energía se estabilizaron notablemente, favorecidos por la evolución a la baja del precio del petróleo y del gas natural.

En lo que respecta al **sector público**, la recaudación por tributos concertados alcanzó un récord en Gipuzkoa en el año 2022, superando ampliamente las previsiones iniciales. En concreto, la recaudación ascendió a más de 5.598 millones de euros, si bien es cierto que la tasa de variación interanual se fue moderando en los últimos meses, situándose en el 4,8% al cierre del año. Este récord estuvo impulsado, en buena medida, por el repunte de la inflación que se produjo particularmente a mediados de año, y sus efectos sobre el IVA; y también por la mejoría del empleo y la aceleración del crecimiento de los salarios.